# ZERK AMORRATZEN GAITU?

*Eta zer egin genezake halako egoeratan?*
*Binaka koplatan: lagun batek, haserrearazten gaituen egoera bat deskribatuko du. Beste lagunak, horrelakoetan zer egin genezakeen proposatuko du.*

*Doinua: Iruten ari nuzu*
*Neurria: Kopla txikia / Lauko txikia*

## ESKOLAN LANEZ GAINEZKA!

### ONETIK ATERATZEN GAITUENA

odolak **irakin**
azterketekin eta
etxeko **lanekin.**

### HALAKOTAN ZER EGIN

hainbeste **endredo**
lan pixka bat egiten
bada **egunero.**

## ENTZUTEN EZ NAUTENEAN

### ONETIK ATERATZEN GAITUENA

hainbeste **arazo**
zerbait diodanean
egitea **paso**.

### HALAKOTAN ZER EGIN

konturatu **dadin**
belarrira hurbildu
**altabozarekin**.

## AHIZPA/ANAIAREKIN BORROKAN

### ONETIK ATERATZEN GAITUENA

barren-**barrenean**
nire ahizpa/anai txikia
harrotzen **denean**.

### HALAKOTAN ZER EGIN

ipini **aparte**
arretarik ez jarri
lasaitzen den **arte**.

## ARAZOAK KOMUNEAN

### ONETIK ATERATZEN GAITUENA

sutan, **komunean**
komuneko papera
amaitzen **denean.**

### HALAKOTAN ZER EGIN

aurrezteko **kexak**
eraman ditzakezu
patrikan **kleenexak.**

## KONFIDANTZA URRATUA

### ONETIK ATERATZEN GAITUENA

hain **amorratua**
norbaitek txibatzean
nire **sekretua**.

### HALAKOTAN ZER EGIN

ez dut **gustokoa**
ez irakurri nire
**egunerokoa**.

## NIRE PLATERA DA!

### ONETIK ATERATZEN GAITUENA

amorruz **gainezka**
platerean norbaitek
sartzean **sardexka**.

### HALAKOTAN ZER EGIN

erraza da, **tira**
mahaian ez zaitez egon
zerura **begira**.

## LO EGIN NAHI DUT!

### ONETIK ATERATZEN GAITUENA

ez da, ez, **txistea**
gauean albokoa
zurrungan **hastea**.

### HALAKOTAN ZER EGIN

soluzio **polita**
egin lo belarritan
tapoiak **jarrita**.